



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko abuztuaren 29a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Gobernu Irekiaren web orrian Kontu-hartze Orokorren txostenak argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak bidegabeki immatrikulatutako ondarea aldezteko toki entitateek duten informazio-eskubideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak jaiegun berezien ordainketa txandaka lan egiten duten profesional guztiei hedatzeko ezarriko dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Justizia Sistema Publikoaren elkarreragingarritasun (2) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, datura bideratutako Justizia (3) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Zerbitzuetan hobekuntza digitala jarraitu eta hedatzeko (4) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Justizia arloan komunikazio elektronikoetarako eta langileriaren kudeaketarako sistema komuna hobetzeko (5) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Justizia arloan arartekogabetasun digitala egonkortzeko (7) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Sistema Publikoan testualizazioa osorik garatzeko (8) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Erregistro Zibileko liburuak osorik digitalizatzeko (11) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, gai judizialak, gordailuak eta konbikzio-piezak sistematizatzeko eta digitalizatzeko aplikazioa garatzea (13) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higiene eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gobernu Irekiaren web orrian Kontu-hartze Orokorraren txostenak argitaratzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gobernu Irekiaren web orrian Kontu-hartze Orokorraren txostenak argitaratzeari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 3ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sanchez de Muniain jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 3156 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko maiatzaren 30ean (10-22/PES-176), Gobernu Irekiaren web orrian Kontu-hartze Orokorraren txostenak argitaratzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 22.1.A.f) artikuluan ezarritakoa betez, eragozpen-txostenak argitaratzen dira, bai eta desadostasunak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 101. artikulua araberak horiek ebatzi behar dituzten Gobernuaren erabakiak ere.

Aipatu duzun egunetik, eragozpen-txosten bakarra ebatzi da Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 101. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, Gobernuaren 2022ko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez.

Espedientea behar baino egun batzuk geroago argitaratu da. Jada atzerapen hori behar bezala zuzendu da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 3an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Eliza Katolikoak bidegabeki immatrikulatutako ondarea aldezteko toki entitateek duten informazio-eskubideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Buil García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eliza Katolikoak bidegabeki immatrikulatutako ondarea aldezteko toki entitateek duten informazio-eskubideari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 3ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Mikel Buil García jaunak galdera egin du (10-22/PES-00177), jakin nahi baitu zer ekintza gauzatu duen Lurralde

Kohesiorako Departamentuak eta zein egin nahi duen epe labur eta ertainean, Eliza Katolikoak bidegabeki immatrikulatutako ondarea aldezteko toki entitateek duten informazio-eskubidea bermatze aldera. Galdera hori dela-eta, Nafarroako Gobernuo Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak jakinarazten du Nafarroako Gobernua aztertzen ari dela aholkularitza juridikoaren arloko ekimenen bat ezartzeko aukera, toki entitateek ondasun immatrikulatuak berreskuratzeko asmoz helarazten dizkioten aholkularitza-eskaerei erantzun ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Osasun Departamentuak jaiegun berezien ordainketa txandakalan egiten duten profesional guztiei hedatzeko ezarriko dituen neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuak jaiegun berezien ordainketa txandakalan egiten duten profesional guztiei hedatzeko ezarriko dituen neurriei buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marisa de Simón

Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-178), jakin nahi baitu “zer neurri ezarriko den jaiegun berezien ordainketa txandakalan egiten duten profesional guztiei hedatzeko, Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa betez”. Galdera hori dela-eta, hona hemen Nafarroako Gobernuo Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako mahai sektoriala ekainaren 30ean bilduko da. Deialdiko gai-zerrendan jasotako aztergaietako bat izanen da 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 18/2021 Foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarria.

Hala, negoziatu egingen da “zein izanen diren egun bereziak aipatu modulua kobratzeari dagokionez, bai eta jaiegun berezietako modulua txanda arruntetan ari diren langile guztiei heda-

tzeko aukera ere”, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Justizia Sistema Publikoaren elkarreragingarritasun (2) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Justizia Sistema Publikoaren elkarreragingarritasun (2) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00179). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak honako epe hauek aurreikusten ditu elkarreragingarritasun proiektuetarako:

1. 1. elkarreragingarritasuna /Espediente judicial elektronikoarena eta agiri judicial elektronikoarena: adjudikazioa 2022aren amaierarako, eta exekuzioa 2022an eta 2023an.

2. 2. elkarreragingarritasuna /Espediente judiciala datuena: adjudikazioa 2023aren amaierarako, eta exekuzioa 2024an eta 2025ean.

3. 5. elkarreragingarritasuna /Prozesuko kudeaketa sistemen eta SIRAJ2 sistemaren artekoa: adjudikazioa 2023aren amaierarako, eta exekuzioa 2024an.

4. 12. elkarreragingarritasuna /Prozesuko kudeaketa sistemen eta Fiskaltzaren Informazio, Kontrol eta Kontsulta Sistemaren (SICC) artekoa: adjudikazioa 2022aren amaierarako, eta exekuzioa 2023an.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sektorialean onetsitako datak:

1. Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa egin da, 2023ko abenduaren 31 baino lehen.
2. Kredituak erabat gauzatu 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, datura bideratutako Justizia (3) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, datura bideratutako Justizia (3) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00180). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Migrazio

Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak 2022ko bigarren sei hilekorako dauka aurreikusita Datura bideratutako Justizia proiektua kontratatzea, eta ustez 2023ko azken hiruhilekorako gauza liteke.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sektoralean onetsitako datak:

1. Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda, 2023ko abenduaren 31 baino lehen.
2. Kredituak erabat gauzatu 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria, Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Nafarroako Justizia Zerbitzuetan hobekuntza digitala jarraitu eta hedatzeko (4) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Justizia Zerbitzuetan hobekuntza digitala jarraitu eta hedatzeko (4) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00181). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak aurreikuspen hau egin du proiektu horiek gauzatzeko:

- Judizio-aretoetako ekipamendua hobetzea:
 - Erabat gauzatu 2023ko azaroaren 30a baino lehen.
- Wifi sarea hedatzea Agoizko, Tafallako eta Tuterako justizia jauregiak.
 - Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko hirugarren hiruhilekorako.
 - Exekuzioa 2024an zehar.

Testualizazio proiekturako softwarea eta azpiegitura

- Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko lehen hiruhilekorako.
- Exekuzioa 2023an eta 2024an.

• EVID, LEO eta NUMO ezartzeko ekipamendua

- Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2022ko bigarren seiuhilekorako, 2023ko lehen hiruhilekorako eta 2024ko lehen hiruhilekorako.
- Exekuzioa 2022an, 2023an eta 2024an.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sektorialean proiektu horietarako onetsitako datak:

• Judizio-aretoen eta lotutako sistemen hobekuntzaren kasuan

– Kredituak erabat gauzatuta 2023ko azaroaren 30a baino lehen.

• Gainerako inbertsioetan

– Kredituak hitzartuta 2023ko abenduaren 31 baino lehen.

– Kredituak erabat gauzatuta 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Justizia arloan komunikazio elektronikoetarako eta langileriaren kudeaketarako sistema komuna hobetzeko (5) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Justizia arloan komunikazio elektronikoetarako eta langileriaren kudeaketarako sistema komuna hobetzeko (5) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00182). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak aurreikusten du komunikazio elektronikoetarako sistema komuna hobetzeko proiektua 2024aren amaierarako adjudikazioa eta 2025ean gauzatzea.

Departamentuak aurreikusten du langileria kudeatzeko proiektua 2023ko lehen hiruhilekoan kontratatzea eta 2023an eta 2024an gauzatzea.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sektorialean onetsitako datak:

– Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko abenduaren 31 baino lehen.

– Kredituak erabat gauzatuta 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Justizia arloan arartekogabetasun digitala egonkortzeko (7) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Justizia arloan arartekogabetasun digitala egonkortzeko (7) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00183). Hona

hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketa-ko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak 2023ko bigarren seihileko-rako dauka aurreikusita arartekogabetasun digita-laren proiektua kontratatzea, eta ustez 2024ko azken hiruhilekorako gauza liteke.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sekto-rialean onetsitako datak:

- Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko abenduaren 31 baino lehen.
- Kredituak erabat gauzatuta 2025eko azaroa-ren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kon-
tseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Nafarroako Justizia Sistema Publikoan testualizazioa osorik garatzeko (8) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galde-
ren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarro-
ako Justizia Sistema Publikoan testualizazioa
osorik garatzeko (8) proiektuaren exekuziorako
aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekai-
naren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari
Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galde-
ra batzuk egin ditu (10-22/PES-00184). Hona

hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketa-ko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak 2023ko bigarren seihileko-rako dauka aurreikusita testualizazio proiektua
kontratatea, eta ustez 2024ko azken hiruhileko-
rako gauza liteke.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sekto-rialean onetsitako datak:

- Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko abenduaren 31 baino lehen.
- Kredituak erabat gauzatuta 2025eko azaroa-ren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kon-
tseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Erregistro Zibileko liburuak osorik digitalizatzeko (11) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erregistro Zibileko liburuak osorik digitalizatzeko (11) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00185). Hona

hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak 2023ko bigarren seihilekorako dauka aurreikusita Erregistro Zibileko liburuak digitalizatzeko proiektua kontratatzea, eta ustez 2024ko azken hiruhilekorako gauza liteke.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sektorialean onetsitako datak:

- Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko abenduaren 31 baino lehen.
- Kredituak erabat gauzatu 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, gai judizialak, gordailuak eta konbikzio-piezak sistematizatzeko eta digitalizatzeko aplikazioa garatzea (13) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gai judizialak, gordailuak eta konbikzio-piezak sistematizatzeko eta digitalizatzeko aplikazioa garatzea (13) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00186). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Departamentuak 2023ko bigarren seihilekorako dauka aurreikusita efektu judizialak kudeatzeko proiektua kontratatzea, eta ustez 2024ko azken hiruhilekorako gauza liteke.

2.- Hauek dira Justiziako Konferentzia Sektorialean onetsitako datak:

- Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko abenduaren 31 baino lehen.
- Kredituak erabat gauzatuta 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria:
Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00187). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Aurrean aipatu ez diren proiektu guztiek epe hauek bete behar dituzte:

- Kredituak hitzartuta edo adjudikazioa eginda 2023ko abenduaren 31 baino lehen.
- Kredituak erabat gauzatuta 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria:
Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higiene eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higiene eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua betetzeari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00195), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuen osasun baldintzei eta segurtasunari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretuak hau ezartzen du lehen eta bigarren xedapen iragankorretan:

Lehen xedapen iragankorra. Eskakizunak betetzeko epeak.

1. *Bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa salbuespen, 2021eko urtarrilaren 1a izanen da igerilekuek foru dekretu honetan xedatutako eskakizunak betetzeko muga data, betiere, egokitzapen horrek instalazioak edo eraikuntza elementuak aldatzea eskatzen badu, eta erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna nabarmen arriskuan jartzen ez duten urritasunak badira.*

2. *Xedapen iragankor honetan xedatutakoaren babesean jardun nahi duten igerilekuen titularrek sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute foru dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo berrogeita bost egun balioduneko epean. Horrekin batera, teknikari eskumendunak sinatutako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, honako hauek jasoko dituena: instalazioen aurkitutako urritasunen xehetasunezko deskribapena, horiek egiturazko aldagata eskatzen dutela*

arrazoitzen duena, zaharberritzea egin bitartean hartuko diren neurri gehigarriak, hautemandako urritasunek sortzen ahal dituzten arriskuak minimizatze aldera, eta, hala badagokio, igerilekuen erabiltzaileei haien berri emateko modua. Adierazpen hori aurkezten ez bada, igerilekuak ezin izanen du funtzionatu, foru dekretu honetan xedatutako baldintzetara egokitu arte.

Bigarren xedapen iragankorra. 105/2012 Foru Dekretuaren ondorioak.

Irailaren 19ko 105/2012 Foru Dekretuaren, erabilera kolektiboko igerilekuen baldintza tekniko-sanitarioak ezarri zituen maiatzaren 19ko 123/2003 Foru Dekretuan agindutako zenbait eskakizunetara egokitzeko epea finkatzen duenaren, babesean aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenek ondorioak izaten jarraituko dute; betiere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak horiei buruz ezarritako baldintzak betetzen badira.

Horregatik, 2021eko urtarrilaren 1erako, foru dekretu horren aplikazio eremuaren barneko igerilekuetako instalazio guztiek dekretuan ezarritako eskakizun guztiak bete behar zituzten.

Azken urteotan arazo ekonomikoak izan dira, ordea, udalen eta igerilekuen titular diren beste erakunde publiko eta pribatu batzuen egoera ekonomiko eta finantzario larriaren ondorioz, eta igerilekuetako instalazio askotan ezin izan zaio aurre egin 86/2018 Foru Dekretuan ezarritako eskakizunak epean betetzeko egokitzapenaren gastuari.

Beste alde batetik, instalazio batzuetan aurreikusita zegoen obrei 2020. urtean ekitea, baina COVID-19aren ondoriozko osasun larrialdiak eta alarma egoerak hori eragotzi zuten, eta instalazioak ezin izan ziren legezko eskakizunetara egokitu 2021eko urtarrilaren 1erako.

Ikusirik igerilekuetako instalazio askok ezin izanen zituztela araudi indarduneko baldintzak bete 2021eko urtarrilaren 1erako, luzatu egin zen egokitzapenerako epea, instalazioen titularrek obrak egiteko nahiko denbora izan zezaten eta legea urra ez zezaten.

Horregatik, Osasuneko kontseilariak proposatuta eta Nafarroako Gobernuaren erabakiarekin bat etorritik, otsailaren 9ko 6/2022 Foru Dekretua

argitaratu zen, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuen higiene, osasun eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua.

Otsailaren 9ko 6/2022 Foru Dekretu horren arabera, 2025eko urtarrilaren 1a izanen da igerilekuek foru dekretuan xedatutako eskakizun berriak betetzeko muga data, betiere, egokitzapen horrek instalazioak edo eraikuntza elementuak aldatzea eskatzen badu, eta erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna nabarmen arriskuan jartzen ez duten urritasunak badira.

COVID-19ak sortutako osasun larrialdiaren eta horren ondoriozko alarma egoeraren aurretik bilek egin ziren Osasuneko, Kultura eta Kiroleko eta Lurralde Kohesiorako departamentuen artean, igerilekuetako instalazioak egokitzeko obretarako dirulaguntzen deialdiaren aukera aztertze aldera. Ez zen dirulaguntzen deialdirik egin, egoera okerraren ondorioz.

Martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legeak toki inbertsioen plana arautzen du, eta aurreikusten du toki entitateek inbertsioak egiten ahalko dituztela igerilekuetako instalazioetan, 86/2018 Foru Dekretuko betekizunetara egokitzeko.

Nafarroako Gobernuak ekarpen hauek egin ditu toki entitateei urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua betetzea errazteko, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez: udal igerilekuetan inbertsioak egiteko 130.151,48 euroko finantzaketa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren bidez; 1.189.274,05 euro, toki ekonomia sustatzeko inbertsioetarako kapital-transferentzien funts bereziaren bidez (2020. urtea); eta 285.000 euro, dirulaguntza izendunen bidez eta despopulatzeko arriskuan dauden Nafarroako toki entitateei 2021ean despopulazioaren aurkako borrokarako dirulaguntzak emateko deialdiaren bidez.

Nabarmendu behar da, gainera, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legeak udalen eta kontzejuen hornidurak finantzatzea aurreikusten duela eta hor finantzatzeko modukotzat jotzen direla, besteak beste, eraikin edo barrutiak birgaitu edo zaharberitzeko obrak, kirol, gizarte, kultura edo aisiako erabilera badute, edo askotariko erabilerrak, edo udaletxe, kontzeju-etxe nahiz alokairuko etxebizitza gisa erabiltzen badira, eta inbertsioaren xede nagusia hauetarikoren bat denean:

- Inguratzaile termikoa hobetzea.
- Inguratzailea hobetzea hezetasunaren kontra babesteko.
- Egitura egokitzea.
- Irisgarritasuna egokitzea.
- Segurtasuna egokitzea suteen aurrean.
- Energia efizientzia etxeko ur beroa sortzeko.
- Energia efizientzia klimatizazioan.
- Energia efizientzia eraikinaren barruko argi instalazioetan.
- Efizientzia uraren erabileran iturgintzako eta saneamenduko instalazioak berrituz.
- Amiantoa kentzea.
- Berritzea eta/edo handitzea egokitzapen funtzionalerako.
- Igerilekuen eta hilerrien arloan nahitaez bete beharreko araudi espezifikorako egokitzea.

Udalen eta kontzejuen hornidurak finantzatzeko 2.160.000 euroko zenbatekoak onetsi dira 2022rako, 2023rako eta 2024rako. Finantzaketan gehienez ere 160.000 euro ematen ahal dira toki entitate bakoitzeko.

Kultura eta Kirol Departamentuak, berriz, 2019ko urteari dagozkion dirulaguntza hauek gauzatu ditu:

Toki entitateak	INBERTSIOA	DIRULAGUNTZA	ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA
Berriozar	214.389,68 €	120.000,00 €	120.000,00 €
Ribaforada	314.190,20 €	120.000,00 €	120.000,00 €
Gares	630.168,00 €	120.000,00 €	18.557,20 €
Artaxoa	343.957,82 €	75.000,00 €	75.000,00 €

Zehazki, herriz herri azalduta, ekintza eta hobekuntza hauek egin dira:

Berriozar:

– Ontziaren estaldurako materiala aldatzea, linerraren ordeztaldura zeramikoa jarritz, irrista-kortasunaren eta ur ertzaren parametroak betetzeko.

– Ontzirako sarbidea egitea arrapala eran.

Ribaforada:

– Arazte gela handitzea egungo iragazki sistema aldatzeko. Egungo arazte sistemak ez ditu betetzen 86/2018 Foru Dekretuak arazte zikloei buruz ezarritako eskakizunak.

– Igerilekurako sarbideko eskailerak aldatu eginen dira hormatik atzera sartuta gera daitezen.

Gares:

– Ontziaren neurriak aldatzea.

– Azaleko gainezkabide berria egitea.

– Ura hondotik ateratzeko eta gainezkabidetik ontzira ekartzeko sare berriak egitea.

– Konpentsazio ontzi berria egitea.

– Arazte sistema berria egitea (4 ordutik behin-go).

– Estankotasun sistema berria egitea bere dilatazio junturekin.

– Estaldura zeramiko berria jartzea ontzian eta ur ertzetan, ezaugarri irristagaitzak dituena.

– Sarrerako dutxaontzi berriak egitea.

– Ur ertzetan saneamendu sistema berria egitea.

– Sarbideak eraikitzea minusbaliotasuna duten pertsonentzat eta adinekoentzat.

Artaxoa:

– Ontziaren neurriak aldatzea.

– Ur ertzaren neurriak aldatzea.

– Ontzi hondoaren malda aldatzea.

– Ontziaren zoko, ertz eta oztopoak kentzea.

– Ontziaren sakonera seinaleztatzea.

– Ontziko hormen eta zoruaren estaldura aldatzea.

– Finlandiar erako gainezkabidea egitea.

– Hondoko hustubide “zabala” jartzea.

– Altzairu herdoilgaitzezko eskailerak jartzea.

– Sarrerako arrapala egitea % 10eko maldarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko uztailaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna